



OROIPENAK

XABIER

Nere aurtzaroko oroipenak datoz nere burura, gure «kontsejupeko», eleiz-atari eta udal-etxeke enparantza nagusia gai dirala. Urteen zear, noiz edo noiz nolabaiteko aldakuntza izan arren, leku auek berdin azaltzen dira, bañan bertan lengo pakerik ez.

Biztanle eta abar dirala, erriaren izaera aurrerantz dijoa. Gure kaleetan eta batez ere enparantza onen zear, berebill, jende ta ibillaldiak ugaritu dira urte aietatik onuntz.

Lengo pake leku artan, ume giñanean, ertz batetik, Markolaneko ostatu errikoitik, Udal-etxe aldera «marrumarrutan», jolas korrikalarian ibiltzen giñanean, tartean ezeren eragozpenik ez genduan topatzen, elkarren artean amar neurkiñen neurrik ez zan bear, naikoa baizan bata besteari eskua ikuitzea; ura izaten zan unea bakoitzak bere lekura iges egitekoa.

Gauza bera Txikitoneko ostatu zanaren (gaur «Hoyos» eta «Grema») alboan, eta eleiz maillaldian bertako orma, pelota leku bezela artzen genduanean (bertan pelotan ari-tzea debekatua zegon). Ala ta guziz ere, eta aurka egin bearrean agindu oneri, makiña bat alditan gure saioan ari giñala, iges egin bearra izaten genduan bertan dagon tartetik zear, orduko ertzain ziran nere osaba Leokadio, Kandido, Martinez, Barandiaran eta Aduriz, Garcia buru zutelarik, azaltzen ziranean. Gure korrikaldiak laburrak izaten ziran, laister ezagutzen bai zuten zein izandu ziran jolasean ibilliak.

Tarte ontatik ere eramaten ziran gorputzak Gaztelutxo aldera, illeta ondoren, eta gogora datorkit, ez nork esan zuana, bañan bai esaera: «Hasta para pasar a la otra vida, hay que pasar por lugares tan estrechos». Oraingo umeak nai ta ere, ez daukate orrela ibiltzerik eta gutxiago leku orretan orrelako jolasen bearrik.

Eta zer esan enparantza onetan egiten ziran jaietzaz? Gogoangarriak guziak: iñauterietako egun alaiak, ostegun gizen, iñauteri igandeko goizeresiak, txistu, turuta eta beste ereskin tresna batzuekin, euskal doñu bereziak erabilliaz.

Zein goxoa ta atsegiña izaten zan, oiean egon arren, goizeko ixiltasunean, une eder ura...

Ostegun arratsaldeko txistularien saio bepezia, ariñ-ariñ eta erri-dantzen soñu alaiak: «Juana Bixenta Olabe», «Leo, leo pastelero» eta egun aietako ainbat eta ainbat doñu ezagun bereziekin, gazte jendeak oso onartzen zituzten, orduko «serpentin eta konfetiz» bazter guziak betetzen zituztelarik.

Igande askotan euria zala ta, erriko txistulari eres batzak zumardian jo eziñean, enparantza onetan egiten zuan bere saioa.

Ederra izan zan eta gogoangarria 1930'go Garagarrillaren lenengo egunean ospatu zan «Lenengo Euskal Olerki jaia». Markolaneko, Txikito, Juan Pello eta Udal-etxe balkoietatik orduko Mattin ta Larralde—mugaz auzkoak— eta bertako Zaiburu eta Telleitxikik bertso saio ederra eskeiñi zuten, eta beste batzuek «Guiñolaren» ekiñaldia azaldu zuten.

Bertsolariak aitaturta, nola ez gogora ekarri, eleiz atarian, meza batzuen ondoren bertso paperetan azaltzen ziran bertso berrien saltzallea, beso motza bera, euskal txamarra jantzita, bertsoak abesten zituan gizon ura. Igandero gai berriak izaten ziran eta atsegiñez beterik berari entzuten gogoz egoten zan jendea, gero etxean gai aieri, arretaz, mamia atera eta elkarren artean, astiro sagardotegian eta etxe sukaldean abestu al izateko.

Gogoangarriak baita ere, urteetan zear bertan izan diran eginkizunak: Donostiar Abes-batzak, erriko Eres-batza lagun zuelarik, Eleizako atarian emandako crestaldia. Leku itxian ez izanik, kale ertzak itxita, eta ixiltasun bereziarekin, nere iritziz, leku oberik ez da izango.

Antzerki berezia «Auto Sacramental» deritzana; eguberri abesti sariketak; lenagotik «Real Unión»'eri (txapelketa irabazi ondoren), Erkaleko Lendakariari, Ostikalari, Txistulari, Arraunlari eta ainbat eta ainbati egindako arrera bereziak.

Ezin aztu—nola aztu?— gurea genduan «Topada». Urte gutxi dira penaren penez egiten ez dala. Utsune au gero ta geiago nabaitzen det. Pazko eguneko une ura: Jesus berpiztu berria Santa Maria kaletik, Kapitan kaletik zear, Udal-etxea aurrean, bere Amarekin elkartzen zan une ura. Batak besteari agur egin ondoren, Beko-kale ta Erdikotik eleizara elkarrekin biurtzen ziranean, eresi alai baten laguntza zutelarik. Berrero ikusiko ote degu?

Orain argi ederrez apaindua dago enparantza, Udal-etxe ta eleizaren ormak beren nortasuna azalduz.

Azkenik, orain, leku berezi au, Madalen jaiari asiera emateko aukeratua izan da. Bertan ain gurea dan «Centenario», Eres-batzak alai azaltzen du, jendea jaietarako prest egon dedin.

Non lengo pake eta umeen jolas leku ixilla? Ludiaren aurrerapenak ekartzen dituan egintzak dira, eta onela artu bear urteetan zear, naiz eta bertako goxotasuna galdu.

*Kontseju eta Eleiz aurreko
Enparantza nagusia
Beti izan zera gure errian
Lekuetan berezia.*

*Bai dantza aldi ta jolasteko,
Naiz ume eta gaztia,
Orain ordea aurrerapenez
Ori da galerazia.*

*Zalla izango da berriz lortzea
Len zenakazun pakia.*

1975 Garagarrilla

